

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2009**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak EAeren Administrazio Orokorraren 2009ko ekitaldiaren kontuen fiskalizazio lana mamitu du, epaitegia arautzen duen 1/1988 Legeak agindutakoari jarraiki. Txostena aho batez onetsi du Osokoak, nahiz baterako bi boto eman dituzten kideen bik eta hiruk.

Fiskalizazio-lanak kontuak egitean erabilitako kontularitzako printzipioen azterketa eta 2009ko urtean zehar administrazioaren aribidean legezko arautegia bete izanaren azterketa besarkatu du.

Legea betetzeari dagokion atalean, erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du EAeren Administrazio Orokorrak legezko arautegia betetzeari dagokionez; alabaina, hainbat salbuespen jaso ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Urteko Kontuetan eta aurrekontuetan ez dira sartu sektore horretako fundazio eta partzuergoei dagozkienak, 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 7.4. artikuluan xedatutakoarekin bat, nahiz horiek ere osatzen duten EAeko sektore publikoa.

Ekitaldirako oniritzitako aurrekontuek ez dute sarrera eta gastuen lurraldearen araberako sailkapena barne hartzen eta honek 1/1994 Legegintzako Dekretuaren 57. artikulua urratzen du.

Administrazioko kontratazioari dagokionez hainbat lege-hauste azaleratu dira, bestek beste, bi obra kontratutan onartutako aldaketen ondorioz hasiera batean esleitutako aurrekontuak % 58 eta % 50 gehitu izana; horrek lehia printzipioak urratzen ditu.

Halaber, Gobernu Kontseiluak arautegian finkatutako salbuespenetzko prozedurari jarraiki, obra-kontratu, hornidura eta laguntza teknikoaren kontzeptuan 23,6 milioi euro baliokidetu dituela azpimarratu da, aurrez Ekonomia Kontrolerako Bulegoak kontrako txostena jaulkia zuela. Hona hemen ez-betetze nagusienak: publizitate eta lehia

printzipioak ez betetzea, epea iraungi ondoren zerbitzua ematen jarraitzea eta kontratua zatikatzea.

Diru-laguntzei dagokienez, guztira 12,2 milioi euro eman dira zuzeneko diru-laguntzetan, indarreko arautegiak agintzen duen apartekotasun eta/edo deialdi publikoa deitzeko ezintasunaren betekizunak urratuz.

Azkenik, HKEEK adierazi du ekitaldiaren kontura 8,1 milioi euroko transferentzia-gastuak erregistratu direla BFaren alde; hori horrela egin da Finantzen Euskal Kontseiluaren erabaki baten ondorioz, ekarpenak zehazterakoan Gipuzkoako Lurralde Historikoan Ondarearen gaineko Zerga eusteak eragindako ondorioak direla-eta; ordea, erabakiak ez ditu zehazten zein izan diren BFari egindako konpentsazioa gainerako erakundeen artean banatzeko baliatu dituen irizpideak eta ez du juridikoki arrazoitzen Administrazio Orokorrak diruz laguntzeko zein arrazoi dituen.

Epaitegiak adierazi du Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak aurkeztutako Kontuak alderdi esanguratsu guztietan 2009ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten duela, bi salbuespenekin:

Lehenengo salbuespenean, HKEEK dio ekitaldi itxieran Diruzaintza Geldikin Erabilgarria 512,9 milioi euroren zenbatekoan murriztu behar litzatekeela, finantza erakundeetako kontu ez erabilgarrietan -1etik 3 urtera bitartean- gordailutatuko zenbatekoari dagokiolako, euskal enpresei Laguntza Finantzarioa emateko Programa arautzen duen arautegian aurreikusitakoaren arabera.

Bigarren kasuan, 2009ko abenduaren 31n gauzatutako eta erabili gabeko maileguekin -azkenean 2010eko urtarrilean eta otsailean erabili zirenak- aurreko ekitaldietan erabilitako irizpide bera erabili izan bazen, Diruzaintza Geldikin Erabilgarria 350 milioi euroan murriztuko zatekeen.

Barne Kontrolerako Sistemiei eta Kudeaketa Alderdiei buruzko Irizpenen atalean administrazioaren jardueri dagozkien beste alderdi batzuk barne hartu dira, hala nola, langileria, kontratazioa, diru-laguntzak, kontabilizazioa, e.a. HKEEK hobetu edo zuzentzeko gai direla irizten dienak.

Finantza egoerari dagokionez, diru sarrera gutxiago izateak eta gastu arruntak areagotzeak, biek batera, aurrezki gordina 1.743,8 milioi euro gutxitzea eragin dute, 2008ko ekitaldiko emaitzarekin alderatuta. Honek, lehenengo aldiz 2006ko ekitaldiaz geroztik, zeinu negatiboa du. Berebat, HKEEk Diruzaintza Geldikinak ere behera egin duela azpimarratu du eta honela, 2008ko ekitaldian sarrera arrunten gainean % 20 egitetik, 2009ko ekitaldian % 3,44 egitera aldatu da; bestetik, gainera, Erabilitako zorra 1.588,9 milioi euro gehitu da aurreko ekitaldiarekiko.